# Erabilera eskuliburua

# ERREPIDE BIDEZKO GARRAIOAREN KOSTUEN SIMULAGAILUA

## 1.1 bertsioa (Maiatza 2017)

# AURKIBIDEA


**AURKIBIDEA ........ 2**

**1. KOSTU-SIMULAGAILUAREN OINARRIZKO FUNTZIONALTASUNAK ........ 3**

**2. KOSTU-SIMULAGAILUAREN ERABILERA ........ 4**

2.1. SIMULAGAILUAREN AURKEZPENA ........ 4

2.2. SIMULAZIO BERRI BAT HASI ........ 6

2.2.1. KALKULU ZEHATZA ........ 8

2.2.2. KALKULU ERRAZTUA ........ 10

2.3. EMAITZAK ........ 11

2.4. ZERBITZU BATEN KOSTUA ........ 20

# 1. KOSTU-SIMULAGAILUAREN OINARRIZKO FUNTZIONALTASUNAK

- Simulagailurako sarbide publikoa.
- Ibilgailu motaren araberako kostuen analisi eredua da.
- Aurretik zehaztutako 4 ibilgailu mota, eta pertsonalizatu daitekeen mota arrunt bat ditu.
- Bi kalkulu mota eskaintzen ditu: zehaztua eta erraztua.
- Halaber, zerbitzu jakin baten kostuaren kalkulua onartzen du.
- Bidaiarien eskatu ahalako garraioaren sektorearen kostuen eboluzioari buruzko informazioa eskaintzen du (epe ertainera).
- Emaitzak Kalkulu-orri edo baliokideen bitarteko tratamendu pertsonala izan dezaten esportazioa onartzen du.
- Kalkulu-orria deskargatzeko aukera ematen du, simulazioak lokal moduan egiteko.

**Oharra: *"Simulazioan"*** edo ***"zerbitzuaren kostuan"*** eremu bat informatu gabe uzten bada eta beste eremu bat kalkulatzeko erabiltzen bada, kalkuluan "0" balorea hartuko da.

# 2. KOSTU-SIMULAGAILUAREN ERABILERA

## 2.1. SIMULAGAILUAREN AURKEZPENA

Simulagailuaren aurkezpen pantailan Laguntza botoia erakutsiko da eta bertatik erabilera-eskuliburua deskarga daiteke.

Errepide bidezko pertsonen garraioaren kostuei dagozkien ondorio nagusiekin txosten bat ere deskargatu daiteke. Horretarako, Txostena botoian sakatu.




Ezkerreko menuan lau aukera daude:

- Simulagailuaren aurkezpena: aurkezpen pantailara sartzeko esteka. Hortik erabilera-eskuliburua deskarga daiteke eta garapen-txostena deskargatu.
- Simulazio berria online: Simulagailuaren hasierako pantailara sartzeko lotura.
- Simulazio-orri xehatua deskargatu: Excel bat deskargatzeko lotura, xehatutako simulazioak egin ahal izateko, Web orrira konektatuta egon behar izan gabe. Excel-ak Webean kalkulu berberak egiten ditu eta datu estatistiko berberak ditu.

**Adibidea:** Simulagailuaren Excel-aren hasierako pantaila:




- Simulazio-orri xehatua deskargatu: Excel bat deskargatzeko lotura, xehatutako simulazioak egin ahal izateko, Web orrira konektatuta egon behar izan gabe. Excel-ak Webean kalkulu berberak egiten ditu eta datu estatistiko berberak ditu.

**Adibidea:** Simulagailuaren Excel-aren kalkulu sinplifikatuaren pantaila:



## 2.2. SIMULAZIO BERRI BAT HASI

Simulazio berri bat hasteko hiru aukera seinalatu behar dira:




### 1. Ibilgailu mota

4 ibilgailu mota eskainiko dira, eta horietarako erreferentziazko batez besteko baloreak sartuko dira, datu estatistikoen arabera.

Halaber, erabiltzailearen nahien araberako edozein autokarraren konfigurazioa onartzen duen ibilgailu arrunta eskaintzen da. Datu estatistikoak orientagarriak izango dira.

### 2. Kalkulu mota

Bi kalkulu-moten artean aukera daiteke:

- Kalkulu zehatza: parametro kopuru handia zehaztea eskaintzen du, 6 multzotan:

    1. Ibilgailuaren ezaugarriak.

    2. Erosketaren prezioa.

    3. Pertsonalaren kostua.

    4. Aseguruak eta zerga arloko kostuak.

5. Kostu aldakorrak.

6. Zeharkako kostuak.

- Kalkulu erraztua: Erabiltzaileak ibilgailuaren datuak urteko kostuaren 25 balore adierazgarrienen bitartez zehazten ditu.

## 3. Datu estatistikoen karga

"Kalkulu-formularioetara gehitutako datu estatistikoak dituen simulazioa hasi nahi duzu?" galderari erantzunez, adierazten da hasieratuko den simulazioa datu estatistikoen datu berdinekin beteta egongo den.

## 2.2.1. KALKULU ZEHATZA

Aukera honek autokar baten urteko kostua kalkulatzeko datu aipagarri ugari erabiltzeko aukera eskaintzen du.

**Adibidea**: *"Pertsonalaren kostua"* urratsari dagokion pantaila:




Simulazioaren urrats bakoitzak blokeetan bildutako eremu-sorta du. Aurreko irudian, "IBILGAILUAN DOAZEN LANGILEEN KOSTUA" blokeak betetzeko 10 eremu ditu eta automatikoki betetzen diren 3. Eremuko hondoko koloreak bereizten ditu.

Eremuak betetzeko modu batzuk daude:

- Balore eremuan zuzenean sartuta.
-  irudian klikatuz, balore estatistikoa erlazionatutako eremura pasatuko da.
-  sakatuz, erlazionatutako eremu guztiak dagozkion datu estatistikoekin beteko dira.

- 

 klikatuz, simulagailuaren eremu guztiak beteko dira, dagozkion datuekin.

Urratsez aldatzeko eta simulazioa betetzen jarraitzeko honako hau egin daiteke:

- Botoi hauetan klikatuz: 




- Sartu nahi den urratsean klik eginez:




Urratsez aldatzen bada eta eremu guztiak bete ez badira, marra etenen bidez adieraziko da, eta horiek bete gabe dagoela adieraziko dute. Osatzeko, datu bat informatu ez izatekotan, "0" baloreaz bete behar da.




Simulazioaren edozein momentutan, sartutako simulazioaren datuak deskargatu daitezke Excel fitxategi baten bidez, pantailaren goiko menuko aukeran klik eginez.




Simulazioaren edozein momentutan, berriro hasieratu nahi bada edo beste bat kalkulatu, aukera honetan klikatuko dugu:

- » Simulazio berria online pantailaren ezkerreko menuan.

- 

 pantailaren goiko menuan.

## 2.2.2. KALKULU ERRAZTUA

Funtzionamendua kalkulu zehatzarena bezalakoa da, baina ibilgailu bakoitzeko sartzeko datuak 25-ra murriztuz.

**Adibidea**: Ibilgailu-mota baten ezaugarriei dagokion pantaila



Simulazioaren edozein momentutan, berriro hasieratu nahi bada edo beste bat kalkulatu, aukera honetan klikatuko dugu:

- 

pantailaren ezkerreko menuan.
- 

pantailaren goiko menuan.

## 2.3. EMAITZAK

Funtzionaltasun honek sartutako datuen araberako emaitzen laburpen grafikoa eta zenbakizkoa azaltzen du.

Emaitzak hiru pantailatan erakutsiko dira eta horietara sartuko gara dagozkien irudietan klikatuz:




Horietako bakoitzean informazioa deskargatuko da bai Excel formatuan bai PDF-n dagokion irudian klikatuz:




Deskargan erakutsiko den informazioa (bai Excel bai PDF) momentu honetan pantailan bistaratzen ari dena izango da. Hau da, barren emaitza bistaratzen ari bada, barrak aterako dira edo grafiko zirkularrak bistaratzen ari badira, grafiko zirkularrak bakarrik deskargatuko dira.

- Datu tabulatuak: balore partikularren ("*Erabiltzaile*" zutabea) eta "*Estatistikak*" zutabean agertzen direnen arteko konparaketa egiteko aukera ematen du ibilgailu bakoitzaren bataz besteko gisa.

- Barren grafikoa: Balore partikularren eta estatistikoen arteko konparaketa egiteko aukera emango du barren grafikoen bidez.
- Grafiko zirkularrak: Balore partikularren eta estatistikoen arteko konparaketa egiteko aukera emango du grafiko zirkularren bidez.

Emaitzen pantailen beheko aldean, kostuen talde nagusien GARAPEN-GRAFIKOen datuak emango dira, simulagailuaren "*Estatistikak*" zutabean kargatutako baloreetarako.

Informazio hori epe ertainera erakutsiko da, Behatokiaren erreferentzizko baloreen datu historikoak izan ondoren.

**OHARRA:** "GUZTIZKO KOSTUAK" lehenengo taula eta bere sektoreen GRAFIKOAK "Kalkulu zehatza" aukeratzen denean bakarrik erakusten da.

Ondoren, "kalkulu zehaztua" aukeraren "Emaitzei" dagozkien pantaila batzuk erakutsiko dira:

Tabulatutako datuen pantaila:




| URTEKO KOSTUEN EMAITZAK | Estatistikak (2017/03/16) % | Estatistikak (2017/03/16) Euroak | Erabiltzailea (2017/04/05) % | Erabiltzailea (2017/04/05) Euroak |
|---|---|---|---|---|
| GUZTIZKO KOSTUAK | 100 | 126.154 | 100 | 126.154 |
| KOSTUAK DENBORAREN ARABERA | 72,61 | 91.606 | 72,61 | 91.606 |
| Leasinga | 0 | 0 | 0 | 0 |
| Amortizazioa | 17,3 | 21.829 | 17,3 | 21.829 |
| GUZTIZKO KOSTUAK | 100 | 126.154 | 100 | 126.154 |
| KOSTUAK DENBORAREN ARABERA | 72,61 | 91.606 | 72,61 | 91.606 |
| Leasinga | 0 | 0 | 0 | 0 |
| Amortizazioa | 17,3 | 21.829 | 17,3 | 21.829 |
| Finantza-gastuak | 2,47 | 3.112 | 2,47 | 3.112 |
| Gidariaren urteko kostua guztira | 35,65 | 44.975 | 35,65 | 44.975 |
| Ibilgailuan doazen langileen dietak eta beste ordainsari osagarri batzuk | 1,89 | 2.386 | 1,89 | 2.386 |
| Seguruak | 3,37 | 4.252 | 3,37 | 4.252 |
| Zerga-arloko kostuak | 0,82 | 1.035 | 0,82 | 1.035 |
| Kudeaketa eta merkaturatzea | 11,11 | 14.017 | 11,11 | 14.017 |
| KOSTUAK IBILBIDEAREN ARABERA | 27,38 | 34.548 | 27,38 | 34.548 |
| Erregaia | 18,53 | 23.381 | 18,53 | 23.381 |
| Pneumatikoak | 2,31 | 2.917 | 2,31 | 2.917 |
| Mantentzea eta Konponketak | 6,54 | 8.250 | 6,54 | 8.250 |
| Bidesariak | 0 | 0 | 0 | 0 |

Barra-grafikoen pantaila:



Grafiko zirkularren pantailan:



Hiru pantaila horien edukia deskargatu daiteke Excel edo PDF formatuko fitxategian.

Emaitzak .xls formatuan deskargatu — Emaitzak PDF formatuan deskargatu

Adibidez, Excel formatuan:

EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO
EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA — DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONÓMICO E INFRAESTRUCTURAS

**RESULTADOS**

| URTEKO KOSTUEN EMAITZAK | Estatistikak (2017/03/16) | | Erabiltzailea (2017/04/05) | |
|---|---|---|---|---|
| | % | Euroak | % | Euroak |
| **GUZTIZKO KOSTUAK** | **100** | **126.154** | **100** | **126.154** |
| KOSTUAK DENBORAREN ARABERA | 72,61 | 91.606 | 72,61 | 91.606 |
| Leasinga | 0 | 0 | 0 | 0 |
| Amortizazioa | 17,3 | 21.829 | 17,3 | 21.829 |
| Finantza-gastuak | 2,47 | 3.112 | 2,47 | 3.112 |
| Gidariaren urteko kostua guztira | 35,65 | 44.975 | 35,65 | 44.975 |
| Ibilgailuan doazen langileen dietak eta beste ordainsari osagarri batzuk | 1,89 | 2.386 | 1,89 | 2.386 |
| Seguruak | 3,37 | 4.252 | 3,37 | 4.252 |
| Zerga-arloko kostuak | 0,82 | 1.035 | 0,82 | 1.035 |
| Kudeaketa eta merkaturatzea | 11,11 | 14.017 | 11,11 | 14.017 |
| KOSTUAK IBILBIDEAREN ARABERA | 27,38 | 34.548 | 27,38 | 34.548 |
| Erregaia | 18,53 | 23.381 | 18,53 | 23.381 |
| Pneumatikoak | 2,31 | 2.917 | 2,31 | 2.917 |
| Mantentzea eta Konponketak | 6,54 | 8.250 | 6,54 | 8.250 |
| Bidesariak | 0 | 0 | 0 | 0 |



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA
DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONÓMICO E INFRAESTRUCTURAS
GUZTIZKO KOSTUAK
Estatistikak
Erabiltzailea
100
90
80
70
60
50
40
30
20
10
0
GUZTIZKO KOSTUAK




EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA
DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONÓMICO E INFRAESTRUCTURAS
GUZTIZKO KOSTUAK
Estatistikak
Erabiltzailea

Eta PDF formatuan:

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONÓMICO E INFRAESTRUCTURAS

**PERTSONEN ONLINE SIMULAZIOA**

| URTEKO KOSTUEN EMAITZAK | Estatistikak (2017/03/16) | | Erabiltzailea (2017/04/05) | |
|---|---|---|---|---|
| | % | Euroak | % | Euroak |
| GUZTIZKO KOSTUAK | 100 | 126.154 | 100 | 126.154 |
| KOSTUAK DENBORAREN ARABERA | 72,61 | 91.606 | 72,61 | 91.606 |
| Leasinga | 0 | 0 | 0 | 0 |
| Amortizazioa | 17,3 | 21.829 | 17,3 | 21.829 |
| Finantza-gastuak | 2,47 | 3.112 | 2,47 | 3.112 |
| Gidariaren urteko kostua guztira | 35,65 | 44.975 | 35,65 | 44.975 |
| Ibilgailuan doazen langileen dietak eta beste ordainsari osagarri batzuk | 1,89 | 2.386 | 1,89 | 2.386 |
| Seguruak | 3,37 | 4.252 | 3,37 | 4.252 |
| Zerga-arloko kostuak | 0,82 | 1.035 | 0,82 | 1.035 |
| Kudeaketa eta merkaturatzea | 11,11 | 14.017 | 11,11 | 14.017 |
| KOSTUAK IBILBIDEAREN ARABERA | 27,38 | 34.548 | 27,38 | 34.548 |
| Erregaia | 18,53 | 23.381 | 18,53 | 23.381 |
| Pneumatikoak | 2,31 | 2.917 | 2,31 | 2.917 |
| Mantentzea eta Konponketak | 6,54 | 8.250 | 6,54 | 8.250 |
| Bidesariak | 0 | 0 | 0 | 0 |

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONÓMICO E INFRAESTRUCTURAS

**PERTSONEN ONLINE SIMULAZIOA**

**KOSTUAK DENBORAREN ARABERA KONPARAKETAK**




EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONÓMICO E INFRAESTRUCTURAS

**PERTSONEN ONLINE SIMULAZIOA**

**KOSTUAK DENBORAREN ARABERA KONPARAKETEN ESTADISTIKAK**



## 2.4. ZERBITZU BATEN KOSTUA

Zerbitzu baten kostua kalkulatu baino lehen, hautatutako ibilgailuaren simulazioa bete behar da, egindako simulazioaren baloreak erabiltzen baitira.

Pantaila honetarako sarbidea:

- “Emaitzak” pantailaren 

botoian sakatuz.
- Azken urratsean klik eginez:




Zerbitzu baten kostuan honako eremu hauek bete beharko dituzu:

- Zerbitzuaren izena (aukerako deskribapena)
- Zerbitzu honetan egindako kilometroak (km)
- Pertsonekin egindako kilometroak (km)
- Zerbitzu honetako batez besteko kontsumoa kilometroko (litro / 100 km)
- Zerbitzu honetan pertsonek batez beste okupatutako plaza kopurua (p)
- Zerbitzu honen guztizko orduak (h)
- Bidesariak (€)
- Zerbitzu honekin lotutako beste kostu batzuk (€)

Eta kalkulatuko dira, betetzen joan heinean:

- Zerbitzu honen kostua ibilbidearen arabera (€)
- Zerbitzu honen kostua denboraren arabera (€)
- Zerbitzu honen guztizko kostua (€)

- Zerbitzu honen pertsona-kilometroko kostua (€)

**Adibidea:** “Zerbitzu baten kostua” pantaila

